

ZINE FORUMA – V.O.S

VALHALLA RISING (Nicolas Winding Refn)

Ekainak 10, osteguna, 19:00

100 min

Erdi Aro betean, X. Mendean, One-Eye-k (begi bat) (Mads Mikkelsen), gizakiz gaindiko indarra zuen gerlari misteriotsu bat, urteetan esklabo egon dena, bere nagusia hiltzen du eta berarekin daraman haur baten laguntzarekin ihes egitea lortzen du. Ontzi bikingo batean sartu ondoren, lurralde ezezagun batera eramaten duen bidaia bat egiten du, non mina eta odola nagusi diren.

Film historiko bat erakutsi nahi izatea baino gehiago, non ekintzak eta indarkeriak funtsezko papera duten, errealizadoreak bikingoen eta kristauen mitologiaren berrikuspen berezia egiten du, erotutako pertsonaia batzuen bidez, ezezagunarekiko beldurra eta fanatismo erlijiosoa islatzeko.

Muturreko sinpletasuna dela eta, filmean narrazio osoa irungo duen argumentu falta sumatzen da. Baina bere asmoa ere ez da hori. Filmak ez du ekintzarik erakutsiko bataila eta eraso bidez, antzeko premisa duten produktuetan bezala, baizik eta introspektzioa erakutsiko du itsasontzi baten bizkarrera bidaia experimental eta sinboliko gisa, arrazoiaren eta zentzutasunaren lainoak zeharkatuz.

Filmean, Mads Mikkelsen estoiko eta bikain baten protagonista da, eta, paper bat hitz bakar bat ere gabe interpretatzean, aski ezaguna den aktore-trebetasuna eta -erraztasuna erakusten du. Jainkotiar kutsuko pertsonaia misteriotsu bat, bere herriaren ahanzturagatik desagertzen den jainko bezala mundu bat beste baten bidez kontsumitzen denaren alegoria.

Arlo teknikoan, girotze eta argazkilaritza lan txukunagatik nabarmentzen da filma. Eskoziar highlandetan filmatutako filmak ikusmenarentzat miresgarriak diren irudiak erakusten ditu, baina baita basatiak eta etsai-girokoak ere. Mendi malkartsuak, itsaso lainotsuak eta baso basatiak, istorioarekin bat egiten dutenak filmeko beste pertsonaia bat bezala, eta filma pantaila handian ikusi ahal izatea esperientzia ederra izatea lortuko dutenak.

Pelikula bitxia bezain erakargarria da. Bere generoko filmen alternatiba bitxia. Ez dago iraganeko kultura baten distiraren isla izan daitekeen Valhallarik. Ez dago borroka epikorik, garaipen loriatsurik edo amaiera arrakastatsurik. Giza arimaren barnealde ilunera egindako jaitsiera ikaragarria besterik ez.



ZINE FORUMA – V.O.S

VALHALLA RISING (Nicolas Winding Refn)

10 de junio, jueves, 19:00

100 min

Plena Edad Media, en el siglo X. One-Eye (Un Ojo) (Mads Mikkelsen), un enigmático guerrero con una fuerza sobrehumana, que ha permanecido esclavizado durante años, mata a su amo y logra escapar con la ayuda de un niño al que lleva consigo. Tras enrolarse en un barco vikingo, emprenden un viaje que los lleva a una tierra desconocida, donde reinan el dolor y la sangre.

Más que querer mostrar una película histórica donde la acción y la violencia juega un papel fundamental, el realizador hace una particular revisión de las mitologías vikinga y cristiana para reflejar, por medio de unos personajes enloquecidos, el miedo a lo desconocido y el fanatismo religioso.

Debido a su sencillez extrema, la película peca de falta de argumento que hile toda la narración. Aunque tampoco es su intención tenerlo. La película no va a mostrar acción por medio de batallas e incursiones como en productos de premisa similar, sino introspección como un experimental y simbólico viaje a lomos de un barco, atravesando las nieblas de la razón y la cordura.

La película cuenta con el reclamo protagonista de un estoico y soberbio Mads Mikkelsen que, al interpretar un papel sin mediar una sola palabra, demuestra la soltura y destreza actoral por la que es de sobra conocido. Un personaje enigmático de corte semi-divino, alegoría de un mundo que se consume por otro como un dios que desaparece por el olvido de su pueblo.

En el apartado técnico, la película destaca por su cuidada labor de ambientación y fotografía. Rodada en su totalidad en las highlands escocesas, la película muestra unas imágenes tan admirables para la vista como indómito y hostil es el paraje. Escarpadas montañas, nebulosos mares y salvajes bosques que se funden con la historia como un personaje más en la película y que hará toda una experiencia poder ver la película en la gran pantalla.

Esta es una película tan salvajemente extraña como intensamente atractiva. Una curiosa alternativa a las películas de su género. No hay ningún Valhalla que valga ni reflejo de esplendor de una cultura pasada. No hay luchas épicas, gloriosas victorias o finales triunfantes. Solo un apabullante descenso al oscuro interior del alma humana.

